

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Administrazio-egintza ofizioz berrikusteko espedientea behin betiko onartzea

Zuiako Udalaren Osoko Bilkurak, 2024ko apirilaren 5eko ezohiko bilkuran, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 35/2024 Irizpenarekin bat etorriz, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

"1: Ofiziozko berrikuspenaren 2023/1/S02.01.06.03 espedientea behin betiko onartzea

Alkate-udalburuak hartu du hitza, eta, lehenik eta behin, jakinarazi du beharrezkoa dela Osoko Bilkurarako ezohiko deialdia egitea, dirulaguntzak lortzeko epeen ondorioz, eta, aipatutako espedientearen historikoa laburbilduta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 35/2024 Irizpena aipatu du (erregistro-zenbakia: 827/2024), 2024ko martxoaren 22koa.

Alkateak dio irizpen horrek prozedura ebazten duela, Zuiako Udaleko idazkaritzak 2024ko urtarrilaren 4an emandako eta 2024ko urtarrilaren 11ko Osoko Bilkurak onartutako ebazpen-proposamenaren txostenarekin bat etorriz.

Horrenbestez, irizpenak, alde batetik, Udalbatzak 2022ko uztailaren 20an, 2022ko abuztuaren 2an, 2022ko irailaren 8an, 2022ko urriaren 13an eta 2022ko azaroaren 17an hartutako erabakiei dago-kienez sortutako egoera juridikoak babestea erabaki du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2025 Legearen 110. artikuluan ezarritako ofiziozko berrikuspenaren mugak ikusi baititu, eta, bestetik, 2022ko uztailaren 11ko 191/2022 Alkatetza Dekretua eta 2022ko azaroaren 4ko 316/2022 Alkatetza Dekretua berrikustea erabaki baitu.

Eh Bildu Zuiak udal talde politikoak udaleko langile publikoek prozedura honetan egindako lana goraipatu du.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 35/2024 Irizpena ikusi da (erregistro-zenbakia: 827/2024), 2024ko martxoaren 22koa,

Udalbatzako kideek gaia luze eztabaidatu ondoren,

Proposamena aztertu ondoren, udalbatzako kideek gaia eztabaidatu ondoren, eta Udalbatzaren Osoko Bilkura aho batez ados dagoela ikusita, Eh Bildu Zuiak (6), Eaj-Pnv Zuiak (2) eta Zbg-Znuk (1).

ERABAKI DUTE

BAT: Y. S. M.k 1222 erregistro-zenbakiarekin aurkeztutako alegazioa ezestea, 2023ko maiatzaren 8ko alegazioei buruzko txostenean adierazitako arrazoiengatik. Horren kopia bidaliko zaio interesdunari erabaki honen jakinarazpenarekin batera, legeaz dagozkion errekursoekin batera, hala badagokio.

BI: Lurralde plangintza, etxebizitza eta garraio sailaren, etxebizitza sailburuordetzaren, etxebizitza, lurzoru eta arkitektura zuzendaritzaren [Eusko Jaurlaritzak] 3646 erregistro-zenbakiarekin aurkeztutako alegazioa onestea, 2011ko urtarrilaren 4ko alegazio-txostenean adierazitako arrazoiengatik, 2024ko urtarrilaren 4ko alegazioei buruzko txostenean adierazitako arrazoiengatik. Horren kopia bat bidaliko zaio interesdunari erabaki honen jakinarazpenarekin batera, legeaz dagozkion errekursoekin batera, hala badagokio.

HIRU: Udaltzazak 2022ko uztailaren 20an, 2022ko abuztuaren 2an, 2022ko irailaren 8an, 2022ko urriaren 13an eta 2022ko azaroaren 17an hartutako erabakien inguruan sortutako egoera juridikoen babesa onartzea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2025 Legearen 110. artikuluan ezarritako ofiziozko berrikuspenaren mugak aintzat hartuta.

LAU: Alkatetzaren 191/2022 Dekretua, 2022ko uztailaren 11koa, E. B.Y. behin-behineko idazkari izendatzen duena, erabat deuseztat jotzea. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, legez dagozkion errekursoekin batera, hala badagokio.

BOST: Alkatetzaren 316/2022 Dekretua, 2022ko azaroaren 4koa, O. U. A idazkari kontu-hartzaile izendatzeko dena, erabat deuseztat jotzea. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, legez dagozkion errekursoekin batera, hala badagokio.

SEI: Erabaki hau ALHAOean argitaratzea.

ZAZPIGARRENA: Ahalmena ematea Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburuari, edo haren legeko ordezkariari, Udalaren izenean eta ordezkaritzan erabaki hau gauzatzeko behar diren jarduketa guztiak egin eta beharrezko agiri guztiak egin ditzan.”

Denek jakin dezaten argitaratzen da.

Behin betiko onarpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, horren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46.1 artikuluekin bat etorritik, egoki iritzitako beste edozein gorabehera izan gabe.

Murgian, 2024ko apirilaren 22an

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA